



# Koldo Zuazoren euskalkien mapa argitaratu du BERRIAk

## Bonapartek 1870. urte inguruan egindako euskalkien mapa zen orain arteko bakarra

AGURTZANE SOLABERRIETA - DONOSTIA

Koldo Zuazo hizkuntzalariak osatu duen euskalkien mapa berria argitaratu du BERRIA egunkariak. Louis Lucien Bonapartek XIX. mende erdialdean egindako mapa zen orain arte euskalkien ikerketarako zegoen oinarri nagusia. Orduetik ikerketa eta ekarpen interesgarriak izan dira, baina gehienak lokalak eta ez dute Euskal Herri osoa izan aztergai. Zuazok Bonaparteren sailkapena eta mapa osoa egokitu ditu.

Koldo Zuazo 15 urte daramatza euskalkiak aztertzen. Atzo maparen aurkezpenean azaldu zuenez, hasieran ez zuen buruan mapa egitea eta gauzak aldatzea. Baina lanean hasi zenean Bonaparteren sailkapenak gaur egunerako ez zuela balio konturatu zen. Horregatik, beste mapa bat osatzea erabili zuen. Horrek, ordea, ez du esan nahi Zuazoren mapak Bonaparterena baz-

tertuko duenik edo Bonaparteren mapa okerra zenik. «Bonaparteren mapa XIX. mende erdiko euskararen egoera erakusten du. Eta hori ezin da aldatu, ezin da baztertu. Gaur, bihar edo etzi norbaitek garai hartan euskara non egiten zen jakin nahi badu, han agertzen da euskararen mugak zeintzuk ziren; han agertzen da, kolore argi edo ilunaren arabera, non zegoen euskara osasuntsu eta non zegoen transmisioa eta non zegoen transmisioa. Horiek jakin nahi baditugu, ezinbestean beti Bonaparteren mapara jo behar dugu», azaldu zuen.

Gaur egun Bonaparteren mapa aldatzeko premia bazegoela dio Koldo Zuazok. Haren ustez, bi dira arrazoi nagusiak. Alde batetik, orduko hona euskalkien eremua gutxitu egin da, batez ere Nafarroan: «Nafarroako eremu zabal samarrean euskalkia galdu egin da. Euskara, ordea, zabaldu egin da: Cortesen, Fite-

ron eta Corellan, besteak beste, euskaldunak topatuko ditugu». Bestetik, egilearen ustez, ikastolen bidez euskara irakaskuntzan sartzeak eta euskara batuaren sorrerak euskara batzea ekarri du eta horrek euskalkietan eragin du.

### Sei euskalki, ez zortzi

Arrazoi horiek direla eta, Zuazoren arabera, gaur egun sei euskalki daude, zortzi gabe: mendebalekoa, erdialdekoa, nafarra, nafar-lapurterra, zuberotarra eta ekialdeko nafarra. Azken hori hilzorian dagoela dio Zuazok.

### EUSKALKIAK

Bonapartek 1870ean zortzi euskalki bereizi zituen; Zuazok egun sei daudela dio

«Gaur egun Erronkarin ez dago euskara autoktonoa egiten duen inor; duela 13 urte hil zen azkenia. Eta aldamean dagoen Zaraitzu ibarrean, bakarra gertatzen da».

Zuazok euskalki batzuen izenak aldatu ditu: bizkaierari mendebalekoa deitu dio, eta gipuzkerari, erdialdekoa. Besteak Bonapartek deitu bezala utzi ditu. «Buruari beti zatiketa administratiboak ditugu. Haatik, euskalkien banaketa eta banaketa administratiboak ez datoz bat. Bizkaia Bizkaia da, eta Bizkaiko euskarari, Gipuzkoa eta Arabako alderdi batzuetan egiten denez,

### SALMENTA

Durango azokan izango da salgai, 6 eurotan; gero, 8 euro balioko ditu

bizkaitarra deitu beharrean, mendebaleko euskara deitu diot. Halaber, esaterako, Arabako Araitz ibarrean ere Gipuzkoako euskara hitz egiten da. Beraz, ez dut egokia ikusi horri gipuzkera deitzea; erdialdekoa deitu diot», azaldu zuen. Halaber, Bonaparteren mapan euskalkien barruan 25 azpieuskalki agertzen baziren ere, Zuazok 14 bereizi ditu: bi mendebalekoan, hiru erdialdekoan, lau nafarrean, hiru nafar-lapurterrean eta nortana handiko bi ekialdeko nafarrean (Zaraitzu eta Erronkari ibarretakoak). Zuberotarra oso homogenoa dela dio egileak.

Euskalki bakoitzak bere kolorea du mapan, eta azpieuskalkiak bere euskalkiak duen kolorearen tonalitatearekin azaltzen dira. Joxean Apeztegia BERRIAKO infografistak egin du grafikoa. «Ulertzeko erraza izatea eta Koldo mapan azaldu nahi zituen xehetasunak ondo azaltzea izan dira nire helburu nagusiak. Eta horretarako kolorea erabili dugun», azaldu zuen atzo Apeztegiak aurkezpenan.

1870. urte ingurutik —Bonaparteren garaitik— euskalkiek izan duten bilakaera azaldu zuen Koldo Zuazok. Euskalkiak nola aldatu diren ikusteko adibide garbiena Nafarroa dela dio. «Nafarroako iparraldeko ibar